

June Kintanak zilarrezko domina eskuratu du

Kirolak >> 5



Trebakuntzarik ez duten 50 langabetu gutxieneko ezagutzak jasotzen ari dira gero bestelako ikasketak egin ahal izateko

Sakanerria >> 8



Salazarren unibertsoa antzerkira

Doraren lanaren berrikuspen eszeniko bat egin du Ados Teatroak

>> 14



Emakumeak protagonista bihar

Martxoaren 8an festa eta aldarrikapena batuko dira >> 5

Mariñelarena komatik atera da

Entrenatzen ari zela min hartu zuen >> 20

Ihoteak harrapatuta

>> 9-18

Itxesi kaleko azken konponketak

Uharteko Udalak apirilean hasiko ditu lanak. Gainera, igerileku ondoan autokarabanendako espazioa egokituko du

>> 7

Etorkizuneko Bakaiku gaurtik

Bakaikuko Udalak herritarrekin batera 2025eko Bakaiku nolakoa izan behar duen zehazteko prozesua abiatu du gaur

>> 8

Basak zer toki du gure bizitzan?

Galdera hori erantzuten duen arte garaikideko diziplina arteko erakusketa mustuko da asteartean lortia kultur gunean

>> 15

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK

“ Enpresa, ekintzaile eta ikerlari berritzaileen esperientzietatik ikasten dugu.

Nerea Txintxurreta,
Mekanikako Ingeniaritza,
3. maila.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

ATE IREKIAK

GOIERRIKO CAMPUSA
INGENIARITZA

MARTXOAK 15
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

OTORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436
www.mondragon.edu/prest



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Olaitz eta Maren
ZORIONAK bikote!! Egun polittekin pasa zazkizubie, ta segi beti bezin alei ta xalxe-rak!! Muxu pillat fameli gu-zian partes.

Ane ZORIONAK
Ane zure lehenengo urtebetetze-an!! Aitatz eta ama-txoren partez.

Ane ZORIONAK
printzesa!!
Aiton-amonen partez.

Ane ZORIONAK
maitial!!
Eskerrik asko urte ho-netan familiari eman-dako poztasunengatik!

Ane Ayerdi Perurena
ZORIONAK gure sorgintxo maitagarriari 2 urte bete-tzerakoan!! ZORIONAK zuri pila bat aldiz abestuko di-zugu eta gaur bai zure izena esanez. Etxekoak.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

marsuak

7-13

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Zea Mays. Martxoaren 8an, larunbatean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

En vivo tú y yo bikotea. Martxoaren 8an, larunbatean, 23:00etan Olatzagutiko Clinker.

Emakume urrina. Martxoaren 9an, igandean 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Maika Iriarte, Maite Mené eta Xabier Zabala.**

Zinema

12 años de esclavitud. Martxoaren 7an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 9an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Amaren eskuak. Martxoaren 7an, ostiralean, 22:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Euskaraz, gaztelaniazko azpituak.**

Lluvia de albondigas 2. Martxoaren 7an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

La piedra de la paciencia. Martxoaren 13an, ostegunean, 22:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Emakumeak doan.**

Film laburrak

ITB 2.0 aurkezpena eta berdintasunari buruzko film laburrak. Martxoaren 7an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.

Bideo emanaldia

Ametsen bidetik. Martxoaren 7an, ostiralean, 21:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. **Ekaitz Maiz eskalatzailaren emanaldia.**

Mendi irteera

Izaga haitza. Martxoaren 2an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Txirrindula irteerak

Oltza, Iruñea. Martxoaren 9an, domekan, 8:00etan Altsasutik, Burundako mendi bizikleta taldearen bajeratik. **37 km.**

Erakusketak

Altsasuko inauteriak. Martxoaren 9ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Inauteri Batzordea.**

Pintura eta eskultura. Martxoaren

21era arte, Urdiaingo Kaluxa tabernan. Angel Antonio Agirre.

Mayar emakumeak, duintasuneko koloreak. Martxoaren 23ra arte, Irurtzungo San Martin jubilatuek elkartean.

Pintura erakusketa kolektiboa. Martxoaren 30era arte Irurtzungo La Tahonan eta Pikuxarren.

Saiak, elfoak, mariorrazak, gizonak eta emakumeak. Martxoaren 12tik apirilaren 5era arte; astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Nafarroa Aldatuz, Erregimenaren amaiera bultzatuz. Martxoaren 7an, ostiralean, 19:00etan Urdiaingo udaletxean. **Hizlaria: Bittor Moreno. EHBildu.**

Elektrikari negoziak. Martxoaren 10ean, astelehenean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlaria: Xabier Aiestaran. Sasoia.**

Nafarroa Aldatuz, Erregimenaren amaiera bultzatuz. Martxoaren 11n, asteartean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlariak: Miren Aranoa eta Koldo Kastañeda. EHBildu.**

Loa haurtzaroen. Martxoaren 13an, ostegunean, 16:30etik 18:00etara Txioka haur ikastolan. **Hizlaria: Fernando Trebol.** Izena emateko: 948 373 023 edo txioka.haur.ikastola@inigoaritz.com.

Tu cuerpo es un campo de batalla. Martxoaren 13an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Hizlaria: Begoña Zabala. Altsasuko Feministak eta Bilgune Feminista.**

Nafarroa Aldatuz, Erregimenaren amaiera bultzatuz. Martxoaren 13an, ostegunean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. Xabi Lasa eta Xabier Zabalo. Eta 19:30ean, Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlaria: Bikendi Barea. EHBildu.**

Bertsolaritza

Erika Lagoma eta Amaia Iturrioz. Martxoaren 8an, larunbatean, 21:00etan Arbizuko Aldabide elkartean. **Bertso-afaria.**

Literatura

La canción de mi añoranza. Martxoaren 12an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Isabel Lizarraga.**

Tailerrak

Placeres sin edad. Martxoaren 8an, larunbatean, 17:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Aurretik udaletxean izena eman.**

Nolakoa da zure mutil edo neska ideala? Martxoaren 9an, domekan, 18:30etik Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Sexismorik gabeko hizkera, sexismoa publikitatean eta hedabideetan. Martxoaren 8an, larunbatean, 16:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Nagore Huegun.**

Deialdiak

Hipotekek kaltetutako Plataforma. Martxoaren 7an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 7an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Gure gorputza, gure erabakia. Abortoa libre eta doan. Martxoaren 7an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko udaletxe aurrean. **Altsasuko Feministak eta Bilgune Feminista.**

Martxoaren 8ko kontzentrazioa. Martxoaren 8an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko San Migel plazan.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 9an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Argi iluna. Argi igoerarik ez. Martxoaren 10ean, astelehenean, 11:00etan Etxarri Aranazko plazan. **Sasoia.**

Sakanako Langabetuen Asanblada. Martxoaren 10ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA


ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Bakaiku 2025 planaren aurkezpena,
Jorge Iriarteri elkarrizketa...

Esataria: *Maiden*

KIDETU!

www.guaixe.net komunitateko kide egin zaitez, **Sakanako sare sozialean esateko asko duzulako**



Taldeak

Iortia Kultur Gunea, Iñigo Aritza Ikastola, Etxarriko Udala, Emakumeen bilgunea Altsasu, Euskal Herrian Euskaraz Etxarri Aranatz, Itsasi Euskaltegia Aek, Andra Mari Ikastola, Sakanako Mintzakideak, Urdiaingo Herri-Eskola, Sakana Mank, Sakanako Herri-Eskolak, Clínica Josefina Arregui, Aizpea Elkarte, Kultura Olazti, Jon Etxeberria Ijuria, Olaztiko Herri Eskola, Bierrik Fundazioa, Hipotekak kaltetutakoen plataforma, Karriestu errezetak, Iratxe Kontsumitzaileak, Etxerat, Josu Azpillaga, Hiru Mugak Batera, Txolarre, Txingurriye laguntza eta aisialdi taldea...

Kideak

Sinadurak

Juan Manuel Herrero Caba, Aitzol Naberan, Kattuka Haur Eskola, Txistin, Emakumeen Bilgunea Altsasu, M Villar Flores Villar, Iolanda, Nerea, M Luisa Zelaia Mendia, Jonatan Rodriguez, Landarena, Maria Mikelez, Ander Goñi, Zakarrika, Jknafarroa, Jatsu Argarate, JK, Susana, Txio Txioka, Xabat, Idoiastiz, Snk32, Olatz Berastegi, Monika, Zoila Berastegi, Nereab, Benjamin Zufiaurre, Bego Zestau, Olatz, Galder Gonzalez, Benat Agirre, Raf Atxuri, Irune Reparaz, Aitzol Naberan Burgaña, Aritz Viñas, Kakatzan, Andoni Igoa, Jose Luis Asensio, Erkuden Ruiz Barroso, Rosa Otxoa, Laida Aldaz...

Eta zu?

Nola egin Guaixe komunitateko kide

- 1. Erregistratu**
www.guaixe.net/komunitatea atalean sartu eta zure datuekin erregistratu.
- 2. Eskaera**
Zure profileen eskatu guaixe.net-eko kide izatea. Kudeatzaile batek ziurtatuko du benetako datuak eman dituzula eta eskaera onartuko dizu. Hortik aurrera, zure iruzkinak, argazkiak, bideoak... igo ditzakezu.
- 3. Sare sozialen bidez**
Erabiltzaile profila sortu ondoren kontu hori sare sozial batekin (Facebook edo Twitterrekin, momentuz) edo blog batekin lotu dezakezu. Automatikoki agertuko zara "kide" moduan sare horretan dituzun datuekin.
- 4. Arau laburrak**
Erantzunetan edo bestelako ekarpenetan, Guaixe.net-ek akusazioak eta irainak ez ditu onartuko. Halakoak baleude, Guaixe.net-ek kentzeko eskubidea dauka. Bestalde, testua euskaraz idatzi behar da. Bestela, Guaixe.net-ek kendu egingen du.
- 5. Argibideak**
bierrik@guaixe.net
948 564 275
948 567 074

Elkarrekin bidea egiten



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

Pena eta lotsa

Gezurak, azpikeriak (txantxulloak), lapurretak, e.a. luze bat dira gaur egungo arlo ekonomiko, politiko eta sozialetan mugitzen diren ezaugarriak. Zernola-ko 21. mendea!

Orain dela gutxi Espainia marka pandereta eta flamenkoa zen. Ele ba! Orain, berriz, Sacyrren pufoak Panaman; energia eta eko-

logiarilolotutako atzerakadak; Iberdrolako (Galan) jaunaren mugidak; bankeroen aurpegi zabala; politikarien kaskarkeria; apezpiku eta ondoan mugitzen diren apaiz politikoak giza banako eskubideak ezeztatzen; eta bat-batean, eboluzioa ezeztatzen dutenak Erdi Aroko gurutzadak sortuz abortuaren, dibortzioaren, homo-

sexualitatearen... aurka.

Hainbatek inkisizioa eta frankismoa berrirori hemen erreibindikatzeko, hirugarren gudaren bat faltan botatzen dutela dirudi. Eta, bitartean, lapurkeria ondo ikusia dago, Suitzan kontuak izatea eta zergak ez ordaintzea ere bai, eta orain dela gutxi pribatizatutako IBES-eko enpresek ika-

si dute. Hauda "marka Espainia".

Eta zein da nafarren "Reynoko Virreynatoaren marka? Nafarroako Gobernu buruak eta aurreko buru azpikoa mus partidu bat jolasten ari dira, enbido eta ordago artean. Lehen maiteminduak, orain dibortzio prozesu bizian, eta nafar ezkertiarak eta euskaltzaleak begirale. Dibortzioa nafar

gisa? Nola sartu hainbat... seisientos batean? Nolatan Madrilgo protektoradoek dibortzioa onartu, familiak dibortzioaren zama sufritzen badu? Benetan, 1978an Nafarroako Komunitatean jaiotzak abortu lege zabal bat eskatzen zuen. Hori gertatu ez denez, emigrazioa edo eutanasia bide bakarrak dira liberatzeko.

hara zer dien

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna: emakume guztiek eskubide guztiak, egunero

Beste behin ere, Nazioarteko Emakumearen eguna ospatuko dugu martxoaren 8an. Lanarekin, ahaleginarekin, eta, kasu batzuetan biziarekin defendatzen dituzte milioika emakumeek berdintasuna eta emakumeen zein neskatoen eskubideak. Helburua autonomia eta askatasuna lortzea da eta iraganeko arau nahiz eredu inposaturik gabeko herritar-tasun osoa lortzea.

Desberdintasunaren aurkako

oroitzapen, ospakizun eta borroka eguna dugu. Horregatik, deia egiten dugu bat egin dezagun gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna zailtzen duten estereotipoak eta hesiak desagerrarazteko, paktu sozial batekin, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako ereduak sustatzeko. Ezinbestekoa da pertsonak erdigunean jartzen dituen antolaketa politiko, sozial eta ekonomiko baterantz aurrera egi-

tea; eta giza eskubideak, aniztasuna zein berdintasuna errespetatuko dituen baloreetan oinarritutako hezkuntzaren alde egiten duen eredu baterantz joatea.

Asko aurreratu da, baina emakumeon eskubideak oraindik ere urratzen dira. Berdintasuna lortzeko bidean ditugun erronkak argi izan behar ditugu eta tinko mantendu atzera egiteko mehatxuaren aurrean.

Ezin dugu atzerapausorik onar-

tu berdintasuna helburu duten eskubideei dagokionean, ezta biztanle erdiaren ahalmena, talentua eta prestakuntza bazterrean uztea ere. Emakumeen esperientziak, ezagutzak eta baloreak gehitu behar zaizkio gizarteak ezinbestean behar duen aldaketari, eta emakumeen erabateko garapena erraztu behar du aldaketa horrek, emakume nahiz neskatu guztiei bortizkeriarik eta bazterketarik gabeko bizitza ber-

matzearekin batera.

Martxoaren 8an unetxo batean gelditu behar dugu, **EMAKUME GUZTIEKESKUBIDE GUZTIAK, EGUNERO** bete daitezten, horren aldeko apustu eginez.

Eta lerro hauetatik herritarak, eta bereziki, emakumeak animatu nahi ditugu Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldietan parte har dezaten.

Emakumearen bilgunea

barrutik kanpora

Zenbait aseguru beharrezkoak ote

Nafarroako Kontsumitzaile Elkarteak, Iratxek, 2013ko memoria aurkeztu du berriki. Erreklamazioen kopuruari dagokionez aseguruak atera dira garaile (%12), bankuak (%19), energia (%15) eta telefono enprekin batera (18%). Ez naiz harritu, izan ere, astero jasotzen ditugu aseguruaren inguruko erreklamazioak, gehienak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen duen zerbait gertatu eta gero aseguru etxeak ez duela ordainduko erraten baitu.

Aseguru kontratuak nahasiak dira arras, bertan agertzen diren baldintzak ulergaitzak dira gehienetan eta adierazten dutena ongi ezagutzeko Legea, Erakundearen ebazpenak eta epaiak hartu behar ditugu kontuan sarritan. Kontratuak, berriz, aise egiten ditugu, argibide nahikorik gabe, aseguru etxeak ordainduko ez duena ordainduko duelakoan, engainaturik finean. Asegurua kontratatzen duenak gaizki egiten du baldin eta saltzaileak ematen duen informazioaren arabere-

ra soilik egiten badu kontratua. Saltzailea beti interesatua doike.

Gainera, aseguru hartzaileei ez zaie guttienera argibidea ematen beti, batzuetan ez baldintza partikularrak ez baldintza orokorrak ere, nahiz eta legeak aseguru enpresak horretara behartu. Legeak erraten du baldintza orokorrak (kopuruak, estalduren aipamena eta gure datuak baldintza partikularretan agertzen dira) sinatu eta onartu behar ditugula, baina hori beti ez dago gertatzen.

Adibide gisa, aste honetan jasotako erreklamazio bat. Erreklamatzailari sakelako telefonoa ebatsi eta aseguruari jakinarazion 7 egun pasa baino lehen (Legeak agintzen duena). Aseguru etxeak, berriz, ez zuela ordainduko erranzion gure bezeroari eman ez zitzaizkion baldintza orokorrak argudiatuta. Izan ere, geroztik jaso dituen baldintza orokorretan agertzen da indarra erabili gabe gertatzen bada, aseguruak ez duela ordainduko. Aseguruaren Legeak bereizketa

hori ez duela egiten eta aseguru hartzaileak baldintza orokorrak ez zituela jaso, sinatu eta onartu baliatu genuen gure erreklamazioa bideratzeko.

Aseguruetan sosa handia gatzaten dugula ikusita, zer eta nolako aseguruak behar ditugun galdetu behar diogu gure buruari, beharrezkoak ez direnak hartuta guri ez bertze batzuei mesede egiten baitiegu dudarik gabe.

Iratxe

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILA: Patxi Flores
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburordetza

FISKALAREN ESKAERA TXIKIAGOAK:

35/02 auzian fiskalak auzipetuendako zigor eskaerak txikitu egin ditu. Juan Kruz Aldasorori 10 urte eskatzen 4 urte eta 6 hilabete

eskatzen pasa da. Jaione Intxaurregarri, berri, 8 urtetik 2 urte eta 2 hilabetera pasa dio eskaera. Defentsak absoluzioa eskatu du.

sakanerria >>

Martxoak 8

Ekitaldiak eta aldarrikapena bateratuak Emakumeen egunean

Bihar da Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Sakanan hainbat egitarau eta deialdi egin dira. Kultur emanaldiekin batera afariak ere antolatu dira. Baita Abortuaren Legearen kontrako protestak ere.

>> Irurtzun

Aurrera jarraitzen dute XXI. Emakumeen Jardunaldiak. Iruñeko Astelehen Lilak kontzentrazioan parte hartu ondoren, herenegun, Iruñera zinemara irteera egin zuten. Gaur, berri, 20:00etan, Pikuxar euskal txokoan Irurtzun Telebistaren bigarren denboraldiaren aurkezpena izanen da. Eta horren ondoren berdintasuna gai duten film laburrak ikusteko aukera izanen da.

Bihar Emakumeen Jardunaldietan hutsik egiteaz duden bi hitzordudau. 16:30ean, kultur etxean, kafe-solasaldia. Nagore Huegunek Sexismorik gabeko hizkera, sexismoa publizitatean eta hedabideetan gaia hartuta hizketaldia abiaraziko dute. Gauean, aldiz, Iratxo elkartean afaria izanen da. Gaurdian Lorena Arangoak animatuko du Niniak bizitzaren oparia dira... edoze? Ninirik nahi duzu? ikus-

kizunarekin. Azkenik, iganderako, Emakume urrina izenburua duen kontzertua izanen da. Kultur etxeko eszenatokian Maite Mené, Maika Iriarte eta Xabier Zabala ariko dira. Bestalde, jardunaldien barruan, bi erakusketa daude ikusgai Irurtzunen. San Martin Jubilatuek elkartean Chiapasko emakumei buruzkoa eta La Tahonan eta Pikuxarren herriko emakume margolarien lanak.

Arbizu



Zizkerte kultur taldeak eta Arbizuko Udalak biharko emakumeendako bertso-afaria antolatu dute. 21:00etan eseriko dira mahaira Aldabide elkartean eta afalburuan hasiko dira bertsoan Erika Lagoma eta Amaia Iturrioz.

>> Altsasu

Emakumearen Bilguneak hiri inauterian ere berdintasuna aldarrikatzeko deia egin du. Bihar mozorroan lazotxo morea jartzeko gonbitea egin du. Eta festa giroko erasoen kontra azaldu da, gogoraziz ezezoak ezetz esan nahi duela. Bestalde, domekan, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako gonbitea luzatu dute Emakumearen Bilguneak. Intxostiapuntagazte egunean nolakoa da zure mutileta neska ideala? gaiaren inguruan hizketatuko dira, 18:30etik aurrera. Asteazkenerako literatura solasaldia dago iragarria. Isabel Lizarraga idazlea 19:00etan etorriko da lortia kul-



Lizarraga, asteazkenean Altsasun.

tur gunera eta *La canción de mi añoranza* liburua irakurri duten irakurle taldeko kideekin hitz egingen du. Gainera, Isabel Oyarzabal zenari

Emakumezkoak zinemara doan

Emakumearen Nazioarteko Eguna delako Altsasuko Udalen Emakumearen Bilguneak egitarau berezia antolatu du. Etahorren barruan dago emakumeak ostegunetan zinemara doan joateko aukera. Emanaldiak 22:00etan dira, bai-

na gonbidapenak ordu bat lehenago jaso behar dira. Atzo hasita hiru ostegunetan emakumezkoak zinemaz dohainik gozatzeko aukera izanen dute. Haste-ko, atzo, *La ladrona de libros* filma izan zuten ikusgai. Heldu den astean, martxoaren 13an, *La piedra de la paciencia* eta martxoaren 20an, *La vida de Adelle*.

buruzko argibideak emanen ditu. Martxoaren 16ko eguerdirako berdintasunaren aldeko lasterketa antolatuta dago Altsasun. 4 km-ko

ibilbide ez lehiakorra osatzeko gonbitea egin diete emakumei. Izena doan eman www.dantzaleku-sakana.com-en.

>> Olatzagutia

Biharko egitaraua prestatu du Olatzagutiko Udalak. Haste-ko *Places sin edad* tailerra iragarrita dago, 17:30etik 19:30era. Parte hartu nahi duenak udaletxetik pasa edo hara hots egin behar du (948 562 446) izena emateko. Hura despedituta emakumeen eskubideak aldarrikatzeko kontzentrazioa izanen da San Migel plazan, 20:00etan. *Gure askatasuna borrokatuz. El derecho a decidir es nuestro* leloa izanen du bihar Olatzin eginen den bilkurak. Azkenik, Erburua kiroldegian afaltzera elkartuko dira.

Abortuaren alde

Altsasun abortua libre eta dohain eskatzeko kontzentrazioa egingen da gaur. Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak udaletxe aurreko aldera deitu dute 20:00etan. Gure gorputza, gure era-

bakia leloa izanen du kontzentrazioak eta PPko gobernuak sustatu duen Abortuaren Legea salatu nahi dute.

Bi talde feministek antolatuta heldu den ostegunean abortua hiz-

pide izanen du Begoña Zabalak, Emakume Internazionalistak erakundeko kideak. Tu cuerpo es un campo de batalla izenburua duen hitzaldia 19:00etan izanen da, Altsasuko Gure Etxea erainean.



ZORROZTU ZURE ETORKIZUNA

Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldia** gonbidatzen zaitu.
Ezagutu ezazu **Batxilergo**ko gure eskaintza.

Martxoak 15, larunbata, 10:30etan

www.zorroztuzureetorkizuna.com

Zeure begiz ikus ezazu.  Klik batekin informa zaitetz.



Goierri
eskola

Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062



Nonerabili

LURESU

ALTSASU

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN

URDIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA

BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €KO erosketa egitean, %10eko deskontua.

URRUTIA HARATEGIA

IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

KIROLDEGIKO

TABERNA

ARBIZU

Gosaritarako pintxo+kafea 2'30 €.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ

% 10eko deskontua koltxoetan.

ARKANGOA TABERNA

ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

% 5eko deskontua zerbitzu eta produktu guztietan.

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai



>> Olatzagutia

Barrero palindromoetan txapeldun

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak antolatutako euskarazko palindromo lehiaketaren 4. edizioa irabazi du Migel Angel Barrerok. Olatziarrak lehiaketara palindromo hau aurkeztu zuen: *auzi aurrean, amaren zain, iaz neramana: errua, izua*. Dozena bat sortzailerren 70 palindromoren artean onena Barrero olatziarrarena izan zen. Sari gisa Debako Txindurri Iturri nekazal-turismo-sagardotegiak oparitutako bi lagunendako sagardo afaria, logela eta gosaria izanen ditu.

Hitz jokoan zalea

Sarituak esan digunez, betidanik izugarri gustatu zaizkio hitz jokoak. "Beti gaztelaniaz egiten nituen eta euskara ikasten hastearekin batera euskaraz egiten hasi nintzen".

Palindromoa

Ezkerretik eskuinera edo eskuintetik ezkerredera berdin irakurtzen den hitza edo esaldia da palindromoa.

Ohiko gurutzegramak eta autodefinituak aparte utzita palindromoak egin, bokal bakarrik duten istorio laburrak sortu edota pangramak (alfabetoko hitz guztiak erabiliz esaldiak osatzea) egiten ditu. Barrerok aitortu digunez, bere erronka orain pangramak euskaraz egiten hastea da.

Olatziarrak bere denbora libre hartzen du hitz jokoetan aritzeko. Papera eta boligrafoa eskutan hartu eta hitzekin jokatzeari ekiten dio.



Hitz jokoan zale, Barrerok Arrasaten palindromo lehiaketa irabazi du.

Gurutzegramak eta bestelako hitz jokoan aldean, berak egiten dituen jokoetan sortze lan bat badagoela aitortu digu. Barrerok azaldu duenez, palindromoan aberastasuna

luzeran baino esanahian dago. "Esaldiak zentzua badu, horrek balio du". Luzeagoak bazituela, baino itsusiagoak zirela aitortu zigun Barrerok.

SAKANA

Lakuntzako Agirrereren txorizoak Bilbon sarituak

Irurtzungo Urrutiarena eta Urdiaingo Lopez de Goikoetxearena finalistak izan ziren

Inauteriko ostegun gizenarekin batera 18. Bilbo Hiria Etxeko Txorizoen Lehiaketako sariak banatu zituen Bilbon Txarriduna, Txerriaren Akademiak. Lehen saria Lakuntzako Jose Mari Arregi harakinak jaso zuen. Arregi aurretik ere lehiaketan finalista izan da 2007an eta 2009an eta 2012an. Gainera, Agirre 2003an Sakanako XII. Txistorra Lehiaketako txapelduna izan zen.

Epaimahaiak ere bost finalistak izendatu zituen eta horien arte-



Agirrek saritutako txorizoengatik oroigarria jaso zuen Bilbon.

an bi harategi sakandar zeuden: Irurtzungo Urrutia (2006an irabazlea eta 2007an, 2009an, 2010ean eta 2012an finalista) eta Urdiaingo Lopez de Goikoetxea.

Gordinik jateko 93 txorizo aurkeztu ziren lehiaketara: Bizkaiko 34, Gipuzkoako 21, Arabako 11, Kantabriako 7, Errioxako 5, Nafarroako 4 eta Extremadurako 1. Epaimahaiak guztien kalitatea goraitatu zuen. Lehiaketara aurkeztutako txorizo guztiak, 400 bat kilo, 6.000 pintxotan bihurtu ziren eta Bilboko La Granja kafearen parean dohainik banatu zituzten ostegunean.

>>

Xabierraldiak ate joka

Xabierko San Frantzikoren ohoretan egiten den Graziaren Bederatziurrena asteartean hasi zen eta heldu den asteazkenean despedituko da. Eta horrekin batera iritsi da sailduaren sortetxera erromesaldiak egiteko garaia, Xabierraldiak. Fededunek euren kristau bizitza berrikuntzako dute, Kristo konektatu, ibiltzeko bide bat leloari segituz.

Aurreneko Xabierraldia igan-

dean izanen da. Gurutze-bidea 8:00etan abiatuko da Zangoatik eta 10:00etan izanen da meza Xabierraren. Aurtengo berritasuna bihar 17:00etan Xabierraren bertan erromesei egiten zaien harrera meza da. Bigarren Xabierraldia, martxoaren 15ean izanen da. Zangoatik gurutze-bidea 15:00etan abiatuko da eta 17:00etan izanen da meza. Bitartean eta Graziaren



Xabierko gaztelua, atzera ere, erromesen bilgune izanen da.

Bederatziurrenaren barruan, Sakana hartzen duen Mendialde

bikariotzako hainbat kristau asteartean Xabierraren izan ziren.

MOTZEAN

Zortzi langabetu gutxiago Altsasuko enplegu bulegoan

Otsailen %0,51ko jaitsiera izan da Altsasuko enplegu bulegoan eta lan bila dabilen kopurua 1.565ekoa da. Sakana guztiko datuak jakiteko Iruñeko zabalguneko bulegora joaten diren arakildarren eta irurtzundarren datuak falta dira. Bestalde,

Altsasuko enplegu bulegoan sinatu diren 392 kontratuetatik 22 besterik ez dira mugagabeak izan.

Hekimenek eta Udalbiltzak akordioa sinatu dute

Euskal Hedabideen Behategia martxan jartzeko laguntza jaso du

Herri ekimeneko euskarazko hedabideak biltzen dituen elkarteak,

Hekimenek, Udalbiltzarekin akordioa sinatu du. Pasa den asteartean adostutakoaren arabera, Udalbiltzaren Garapen eta Kohesio Fondoko Euskal Herria sendotzen programaren bidez elkarteak 15.000 euro jasoko ditu. Diru hori Euskal Hedabideen Behategia martxan jartzera bideratuko du Hekimenek. Aldi berean, Udalbiltzarekin konpromisoa hartu du haren adituen Sarean parte hartzeko.

Iban Arantzabal Hekimeneko lehen-

dakariak adierazi zuenez, "Behategiaren proiektua elkartearen proiektu estrategikoa da, gaur egungo errealitatea zein den ezagutzeko ez ezik, hurrengo urteetan euskal hedabideek egin behar dituzten urratsak irudikatzen lagunduko digun tresna". Aurten jarri nahi du Hekimenek Behategia martxan eta horretarako EHUko eta Mondragon Unibertsitateko Huzezi fakultateko irakasle laguntza izango du. +www.guaixe.net

» Uharte Arakil

Aurten Itxesi kaleko azken zatia konponduko dute

Igerileku ondoan autokarabanendako espazioa egokituko du udalak

Ostegunean egindako bilkuran Uharte Arakilgo Udalak aurten aurrekontuak onartu zituen. 872.884 euroko diru kontuei baiezkoa eman zien Bilduk. Plenoan ez ziren egon PPko zinegotziak. Aurtengo udal inbertsio handiena Itxesi kalearen hegoaldeko muturra egokitzea da. Futbol zelaiaren eta igerilekuko sarreraren arteko 190 metro inguru horietan sareak eta zoladura berrituko du udalak. Horretarako 132.366 euroko inbertsioa egingen du. 57.000 euro udalak jarriko ditu eta gainontzeko 85.000 euroak Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planetik etorriko dira. Lanak apirillean hasiko da.

Bestelako inbertsio txikiagoak egitea ere aurreikusi du aurten Uharte Arakilgo Udalak. Ainara Aiestaran alkate ordeak jakinarazi digunez, udaletxearen goikogabararen erdia egokitu egingen dute. “Bi gela sortuko ditugu: bat erabilera anitzekoa izanen dena eta bestea artxiborako”. Aiestaranek zehaztu digunez, “pixkanaka ganbara guztia konpondu nahi genu-



Makinak eta langileak, atzera ere, bueltan izanen dira Itxesi auzoan.

ke. Udan kontratatuko dugun langile batek erdi horretan lurra jarri eta paretak egingen ditu”. Udaberrian, bestalde, zenbait kaletako zuloak konponduko ditu udalak. Diru-laguntzarik gabe konponketa handiagotan ezin baita sartu.

Alkate-ordeak nabarmendu duenez, legengintzaldi honetan udalaren finantza egoerak hobera egin du. Horretarako “iruzur fiskalaren kontra zorrotz aritu-

gara eta hirigintza araudia ere zorrotz segitu ditugu. Argindar kontratuak, aseguruak eta telefonoenak errebisatuz diru-xahutzarekin bukatu dugu”, esan digu Aiestaranek. Azaldu digunez, 2011n 1.013.976 euroko zorra zuen udalak; 2012an 945.710ekoa izan zen eta 2013an 886.480 eurokoa. “Burua erabiliz gastatu dugu eta horri esker egin ahal izan dugu ibaiko lanen lehen fasea eta Itxesikoa”.

Autokarabanak



Itxesiko aisaldi gunean gaur egun, futbol zelaia, igerilekuak, taberna-jatebidea eta herri kiroltan inspiratutako parkea daude. Inguru hari bultzada eman asmoz Uharte Arakilgo Udalak autokarabanendako espazio bat prestatuko du aurten. Itxesia kalearen akaberan egonen da, azken etxetik segituan. Han dauden zuhaitzak errespetatuz, lurra kaskailua zabalduko dute eta ibilgailuek argindarra izandez atzpiegitura elektriko jarriko dute. Lanen lehen faseak 10.000 euroko aurrekontua du (7.000 € Galur eta 3.000 € udala).

Zabalik dago egur loteak eskatzeko epea



Hilaren 20ra arteko epea dute uhartearrek etxerako egur lotea udaletxean eskatzeko. Erroldatutako herritar guztiak dute eskaera egiteko aukera, baina udalak familia unitate edo etxe bakoitzeko egur lote bana emanen du. Eskaera egiterakoan 35 euro ordaindu behar dira udaletxean. Hori bai, eskatzaileak ezinbestean udal zerga guztiak ordainduak izan behar ditu. Udalak uhartear bakoitzari dagokion lotea non dagoen jakinarazi ondoren hura ateratzeko epea garilaren 1ean hasi eta lastailaren 1ean despedituko da.

SAKANA

Euskararen aldeko 22ko manifestaziora atxikitzeke deia

Bi egun lehenagora arte eman daitezke atxikimendua euskaldunok.m22@gmail.com helbidean

Nafarroako euskalgintzako hainbat arlotako kideek manifestazio deitu dute martxoaren 22rako, larunbata. Nafarroako Gobernuaren aldetik euskarak jasotzen dituen oztopo ugariak salatu eta hizkuntza politika zuzen baten aldeko deia zabaldu nahi dute. Horrekin batera, Nafarroako euskal komunitate osoari deia egin diote deitzaileek “dinamika sozial indartsua abian jartzera, euskaraz bizitzeko behar diren pausak emanez”. Aldaketarako eman beharreko gakoak pertsonengan jarri dute: “euskara erabiliz bizitzaren arlo guztietan, espazioak euskaldunak, euskara ikasiz, euskaldun bezala harro agertuz”.

Gurea, Lingua navarrorum-a!!! Euskaraz bizi nahi dugu!!! leloa du manifestazioak eta 17:30ean Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko da. Hilaren 20ra arte atxikimendua emateko aukera dago. Dagoeneko hainbat dira hala egin duten sakandarrak: Garbiñe Petriati Ijurr (Hizkuntz Eskubideen Behatokia), Peio Mariñelarena (Nafarroako Ikastolen Elkarte), Eneka Maiz (UEMA), Aitor Karasatorre (Sakanako Mankomunitateko lehendakaria), Felix Alzelai Iriarte (euskaltzalea), Maitane Intxaurreaga Uribarri (Nafarroako Sortuko eleduna), Juan Kruz Aldasoro Jauregi (Sortuko kidea) eta Juankar Lopez Murgatza (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea).



Manifestazioko kartela.

» Arbizu / Etxarri Aranatz

Euskaraz naiz!

Izen-abizenak euskal grafiaz jartzeko tramite erraza udaletxean egin daitezke

Izen-abizenetatik hasita euskaldun izatea bulkatzeko Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Euskaraz naiz kanpaina abian jarri du. Gure abizenak idazterakoan gaztelaniako grafiako c, ch, q, gu, v edota y euskal grafiara aldatzea sustatzen du kanpainak. Arbizuko eta Etxarri Aranatzko Udalek bat egin dute ekimenarekin eta herritarrei dei egin diete euren “izana-

Kontsultatzeko

www.euskaltzaindia.net web orriaren Onomastika/Deiturak atalean Zure izena edota abizena euskaraz nola idatzi behar den ikus dezakezu.

rekin koherente izateko eta abizenak euskalduntzeko”. UEMAren kartelean irakur daitezkeenez, “izena duen guztia bada. Gure izen-abizenak euskal grafiaz. Euskaldu-

Urratsak

- 1- Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.
- 2- Han emanen dizuten eskaera orria zure datuekin bete.
- 3- Eraman beharreko agiriak:
 - a. Nortasun agiriaren fotokopia. (Adinez nagusi ez direnak, gurasoenak).

nak, munduan, izateko”.

Euskal abizena modu ofizialean euskal grafiaz jartzeko prozedura erraza eta motza da. Trami-

- b. Hitzek hitzeko jaiotza ziurtagiria. (Epaitegian edo erregistro zibilean eskatu).
- c. Errolda agiria. (Udaletxean eskatu. Adinez nagusia ez direnek, gurasoenak).
- d. Familia liburuaren fotokopia. (Ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baduzu).
- e. Seme-alaben nortasun agiriaren kopia. (16 urtetik gorako seme-alabak izanez gero).

te guztiak erroldatutako herriko erregistro zibilean egin daitezke, epaitegian edo, ez badago, udal bulegoan.

» Etxarri Aranatz

Hirigintza Planeko aldaketak jendaurrean aurkeztuko ditu udalak

Asteazkenean, 19:00etan, kultur etxean

Pasa den urteko apirillean Etxarri Aranatzko hirigintza eredu modu parte-hartzaile baten bidez zehazteko prozesua abiatu zuen udalak. Hainbat etxarriar izan dira Hirigintza Planaren aldaketa dinamikan parte hartu dutenak udalak

banatutako inkesta erantzunez, antolatu zen tailerren parte hartuz edo batzordean arituz.

Heldu den asteazkenearako deitu den batzarrean Etxarri Aranatzko Udalak Hirigintza Planean egindako aldaketak aurkeztuko ditu. Ekarpenak jaso ondoren, udalak aldaketak bilkuran onartuko ditu.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA
urtariletik maiatzera
tel. 948 604 571
680 652 183
ODERITZ

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002
Unamuno
ALTSASU
Ereiteko patata eta pelleta salgai
SIEMSA ENCA
AVESA DE PATATA

>> Bakaiku

Etorkizuneko Bakaiku gaurtik

Udalak herritarrekin batera 2025eko Bakaiku nolakoa izan behar duen zehaztu nahi du

Bakaikuarrek gaur euren etxeetan udalak banatutako inkesta bat jasoko dute. Udalak herriaren 2025 urte bitarteko beharrei aurre egiteko plana osatu nahi du. Jon Tabar alkateak esan duenez, langintza horretarako "herriaren iritzia jaso eta berarekin batera lan egin nahi dugu". Horregatik, "inkesta, batzar eta lantaldeetan oinarritutako prozesu parte-hartzailea jarri dugu martxan" zehaztu du Tabarrek. Eta gaineratu du bakaikuarrak izanen direla etorkizuneko Bakaiku irudikatu eta oinarri nagusiak erabakiko dituztenak. Hori dela eta, parte hartzerag onbidatu ditu. Prozesuan zehar hartzen diren erabakiak errespetatuko ditu udalak.

Hiru fase izanen direla esan du Egoitz Urritza zinegotziak. Gaur banatutako inkestartekin Bakaikuren diagnosi faseari ekinen diote. Urritzak esan duenez, "herriak dituen aukerak, erronkak, arriskuak eta gabeziak identifikatu nahi ditugu". Bakaikuarrek bi aste dituzte, martxoaren 21era arte, inkesta bete eta udaletxeko idazkaritzan edo buzoian aurkezteko. Urritzak



Aner Galartza, Egoitz Urritza eta Jon Tabar egitasmoaren aurkezpena.

jakinarazi duenez, bitarte horretan udala herriko taldeekin (jubilatuen elkarte, gazte asanblada, gurasoak...) elkartuko da zuzenean haien iritzia jasotzeko.

Beste bi fase

Inkesten emaitzak eta bileretako ondorioak batu ondoren, Bakaikuko Udalaren asmoa da Aste Santu aurretik batzarra deitzea. "Inkesten emaitzak erakutsi eta ondorioak ateratzeko garaia izanen da" esan du Aner Galartza zinegotziak. "Batzarrean ateratako ondorioen arabera lantaldeak osatuko ditugu. Haietan ondorioez aritu eta propo-

samenak eztabaidatu eta eraikiko dira" azaldu du Galartzak. Gauzak ongi egin nahi dituzte eta, horretarako, eztabaidatzeko behar bezain beste denbora eman nahi dute.

Bigarren fasean zehaztutako ondorio eta proposamen zehatzak bakaikuar guztiei aurkeztuko dizkiete, azken fasean aukeratu eta lehentasunak marka ditzaten. Horretarako beste inkesta bat zabalduko dute eta azken erabakiak batzarrean hartuko direla azaldu du Galartzak. "Prozesuan ahalik eta informazio zabalena ematen saiatuko gara, jendearen parte hartzea bulkatzeko" ziurtatu du alkateak.

Inkesta

Hainbat arlo ditu gaur banatutako inkestak eta horietan guztietan Bakaikuk zer norabide izan beharko lukeen esanahalko dute herritarrek. Galde erantzunez aparte, inkestak ekarpenak egiteko aukera ematen du. Euskarene egoeraren inguruko iritzia eta erabilerasustatzeko neurriez galdetzen da inkestan. Eskaintza urte guztian zabaldu behar ote den, festak nolakoak behar duten eta ohituren inguruan galdetzen da kulturari eskainitako atalean. Kirol sustapenerako Bakaikun beharrezkoak diren proposamenak egiteko eskatzen du udalak inkestan. Ingurumenak nahikoa babes ote duen, hobetzeko neurriak, iturri, zuhaitz, landare, baso eta xenda jakinen egoera hobetu daitekeen ere galdetzen du. Herriak behar lukeen azpiegitura publikoek ere galdetzen die udalak bakaikuarrei. Era berean, herriko emakume, gazte eta adinekoen beharrik identifikatzeko eskatzen da. Sozio-ekonomia aldetik herria hobetzeko neurriak ematea eskatzen diete bakaikuarrei ere udaletik.

>> Etxarri Aranatz



Eskaintza zabala azoka sozialean.

Denetarik Zorri Azokan

Gaur, 17:00etatik 21:00etara Etxarriko etxe handiko estalopean

Sakanako ekoizle, artisauek eta artistak euren mahaiak jarriko dituzte gaur Etxarriko estalopean, Zorri Azoka merkatu sozialean. Arratsalde eta gau partean pasatzen direnek fruitu eta barazki ekologikoak, bitxikeriak, bertako produktuak, margolanak eta beste opatuko dituzte. Ekoizleekin zuzenean hitz egiteko eta galdetzeko aukera izanen du, beste behin, bisitariak. Trukerako tartea ere izanen da, horretarako propio mahaiak jarriko baitira. 19:00etatik 20:00etara izanen da. Antolakuntzak, gainera, liburu eta ipuinak eraman eta truketzerag onbidatu ditu sakandarrak. Aldi berean, iragarri du azoka sozialaren zortzigarren edizio honetan Amai Taldeko Kattalinzuri ipuin kontalariak adin guztindako saioa eskainiko duela.

SAKANA

Orain ikasi gero trebatzeko

Trebakuntzarik ez duten 50 langabetu gutxieneko ezagutzak jasotzen ari dira gero bestelako ikasketak egin ahal izateko

Bete egin dira Hezkuntza Departamentuak prestakuntza gutxi duten eta oinarritzko titulaziorik ez duten langabetuei zuzendutako ikastaroak. Gaztelania eta matematika ikastaroetarako 25 plaza eskaini zituen eta 33 eta 33 sakandarrek eman zuten izena. Otsaila eta garagarri bitartean, Altsasun, bi gaitasun horietan trebatu eta akaberako azterketa gainditzen dutenek 2. mailako profesionaltasun ziurtagiria jasoko dute. Harekin Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako ikastaroetan izena emateko aukera izanen dute. Horiek lan munduan sartu ahal izateko aukera emanen diete langabeei.

Iraila eta otsaila bitartean beste bi ikastaro eskaini ziren. Gaztelania ikasten 14 pertsona aritu ziren. Haietatik 13k gainditu zuten azterketa eta batek ez. Matematika ikastaroan, berriz, 15 ikasleetatik dozena batek egin zuen aurrera azterketan eta 3k ez zuten gainditu.

Trebakuntza ibilbidea

Langile asko dira lanerako prestakuntza ikastaroen edota lan esperientziaren bidez lan bide jakin baterako ezagutza jaso dutenak. Langile horiek duten ezagutza maila jakin bat kreditatu ahal izateko lan-agintaritzak Profesionaltasun

Ziurtagiriak sortu ditu. Ogibidearen arabera hiru maila daude eta maila bakoitza eskuratzeko gutxieneko betekizunak zehaztu dira.

Profesionaltasun Ziurtagiriak lortzeko bi bide daude. Esperientzia kreditatzea da bata. Deialdiak egiten dira eta jarritako baldintzak betetzen dituztenek esperientzia ziurtatzen duten dokumentazioa aurkeztu behar dute. Horren arabera, zertifikatua lortzeko zein eduki dakizkiten eta zein ikasi behar dituzten zehazten da.

Ziurtagiria lortzeko beste bidea prestakuntza da. Edozeinek, sarreko gutxieneko baldintza batzuk betez gero, profesionaltasun ziurtagiria lortu dezake. Horretarako, ziurtagiria osatzen duten kompetentzia unitateak betez joan behar dute. Unitate horiek lortzeko prestakuntza ikastaroak egin behar dira. Pertsonaren mailaren arabera hiru mailako batean hasiko da. 1. mailan ez dago sarrera baldintzarik. 2. mailan DBH, LH I, LHko gradu ertaina eta bestelakoak onartzen dira. Azkenik, 3. mailarako batxilergo, LHII, LHko goi gradua eta beste onartzen dira.

Gutxieneko baldintzak ez dituztenek funtsezko kompetentzia batzuk badakizkitela erakutsi behar dute. Hau da, gaztelania eta matematika ikastaroak egin behar dituzte. Horiek gainditu ondoren 2. mailako kompetentziak



Prestakuntza eskaintzen berri bulegoan edo www.empleo.navarra.es orrian.

Aitzindariak

2012 urteko erdialdean Hilduen Irakaskuntza Iraunkorreko irakasleek eta Altsasuko enplegu bulegoko langileek bat egin zuten. Langabetuak funtsezko kompetentziarako probak prestatzeko Hilduen Irakaskuntza Iraunkorreko azpiegiturak eta baliabideak erabiltzen hasi ziren. Prestakuntza oso txikia zuten langabeak helduendako eskoletara bidali zituzten funtsezko kompetentzien probak gainditzen trebatzeko. 2012ko

dituzte eta Profesionaltasun Ziurtagiriak eskuratzeko ikastaroetan izena emateko aukera dute. Gaur egun ziurtagiri horiek lortzeko

abenduan enplegu bulegoan egingandako probak emaitza oso onak eman zituen. Horretan aitzindariak izan ziren Nafarroan eta, ondorioz, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera egun ematen diren ikastaroetarako protokoloa egin zuen. Sakanan dagoen gabeziak bat da prestakuntza emateko kreditutako zentro gutxi daudela eta, horregatik, jende gehienak kanpora, Iruñera batez ere joan behar izaten du.

izen emate epea zabalik dago. Altsasun industria ekipoaren mantentzea eta muntai mekanikoa ikastaroa dago.

>> Altsasu

Irudia berritzeko logotipo lehiaketa deitu du Dendari Elkarteak

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) erakundearen irudia izanen den logotipoa berritu nahi du eta horregatik lehiaketa antolatu du. Oinarrietan jasodenez, logotipoak elkartearen helburu eta ezaugarriekin erlazioa izan behar du. Aldi berean, orijinaltasuna, sintesia eta tokiko merkataritza tradizionala eta gertutasuna kontzeptuak islatuak izatea eskatu dute. Gainera, logotipoan ADE, Altsasuko Dendariek Elkarte-Asociacion de Comerciantes de Alsua leloa agertu behar du.

Parte-hartzaile bakoitzak bina proposamen aurkeztu ditzake. Lanak jatorrizkoak eta orijinalak izan behar dute eta formatu digitalean aurkeztu behar dira (jpg, tiff eta pdf formatuetan), koloretan eta txuri beltzean. Logotipo proposamenak m.cabestrero@comercionavarra.com helbidera bidali behar dira hilaren 31rako. Irudiarekin batera, sortzailearen izen-abizenak, izentxikia eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. E-postak ezin du 3 Mb baino gehiago pisatu. ADEko zuzendaritzako kideak eta Nafarroako Merkataritza Federazio-kide batek osatuko dute epaimahaia. Lan saritua apirilaren 15ean jakinaraziko dute eta egileak elkarreko dendetan gastatzeko 200 euroko txartelak eskuratu dituzte. Sortzaile saritua logotipoa formatu berekorian eman behar du ADEri.

Ez gorde oraindik mozorroa!

Argazkiak: Guaixe, Amaia Iparragirre eta Aitor Satrustegi

Ez gorde oraindik
mozorroa!

HIRIBERRI

Mozorro bazkaria bihar

Ihotebazkaria hartuko du Txiteraelkar-teak bihar. 50 lagun baino gehiago bilduko dira bertan, mozorrotuta. Bazkalondo animatuaren ondoren eta parrandarekin segitzeko, mozorro eta guzti Altsasuko hiri-inauterira joan dira Hiriberrikogazteenak. Hel-duenek goxo-goxo jarraituko dute jai giroarekin herriko elkarteetan.

IHABAR

Moxorroak, Aitezarko, landarra, ninia eta hartza protagonista

Bi eguneko ihote ospakizunak bihar hasiko dituzte Ihabarren. Gazteak 11:00etan bildu eta baserritarrez jantzita, puska biltzea egingen dute. Gazteek jasotako ospakizunetakobi egunetako Gure Kabiya elkartearen egingen dituzten bazkarietarako izanen dira. Bihar, esaterako, bazkaldu ondoren, moxorroak etxez etxeko erronda egingen dute, 18:00etatik aurrera. Bidean opatzen dituztenak zigorrekin berotu eta bestelakoekin zikintzeari ez diote utziko. Errondaren ondoren, 22:00etan herri-afaria eta dantzaldia izanen dute.

Etzi, berriz, gazteak bazkaltzera bilduko dira. Iluntzearekin batera, Aitezarko, Landarra, Ninia eta Hartzak osatzen duten familia herrian agertuko dira. Eta haiekin batera moxorroak. Txistulariak lagun kalejira egingen dute, Aitezarko gaitztoa sutara bota eta landarraren negarrak entzungo dira Ihabarko kaleetan. Bukatzeko otamena izanen da.

ALTSASU

Mozorro zopa biharko

Herri ihoteetan gozatu ederra hartu ondoren, bihar Piñata eguna ospatuko dute altsasuarrek. Koadrilaka mozorrotuta, eguerditik hasita primerako giroa izanen da Altsasan.

➤➤ Martxoak 8, larunbata

Piñata eguna

12:30ean Kalejira Haize Berriak bandarekin.

13:30ean Dantzaldia Haize Berriak bandarekin Foru plazan.

14:30ean Gazte bazkaria Intxostiapuntan (3 euro).

18:00etan Piñata jaitziera Haize Berriak bandarekin eta Txorongo Txarangarekin Zumalakarregi plazatik.

20:00etatik 22:00etara eta 24:00etatik 3:00etara Mozorro dantzaldia Kresala taldearekin.

Argazki +

Argazki gehiago ikusteko aukera www.guaixe.net-en.



URDAIN



ARBIZU



ZIORDIA



OLAZTI



ARRUAZU



ETXARRI ARANATZ

INAUTERIAK 2014 >> Ez gorde oraindik mozorroa!



ALTSASU



TRURTZUN



ITURMENDI



LAKUNTZA



UHARTE ARAKIL



URDIAIN



OLAZI



UHARTE ARAKIL



ALTSASU



ARRUAZU



URDIAIN



ETXARRI ARANATZ

Ez gorde oraindik mozorroa!



DENOK DAKIZKIGUNAK

lactuGOGOETA

"Bertako produktuak erosita, hemengoentzat lana lortzen dugula jakin badakit"

"Horregatik esnea erosterakoan Lacturale aukeratzen dut, Nafar abeltzainen esnea"



MÓNICA PAREDES (IRUÑEA)



www.lacturale.com



Nafarroako Ekoizpen Integratuan Ziurtatutako Esnea
Kategoria Gorena

Lacturalen dena ezagutis dezakegu. Ezorri eta ezagutis gaitzazu. Aldez aurretik deitu: 948 600 449



UHARTE ARAKIL



LIZARRAGA



ETXARRI ARANATZ



ARRUAZU



LAKUNTZA



ETXARRI ARANATZ



LIZARRAGA



LAKUNTZA



ARBIZU



UHARTE ARAKIL



ALTSASU



OLAZTI



URDIAIN



UHARTE ARAKIL



ITURMENDI



LAKUNTZA



UHARTE ARAKIL



ALTSASU



ARBIZU

ZERGATIK UKO EGIN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

CITROËN LANAK

GARDENTASUNA, ZORROZTASUNA ETA FABRIKANTEAREN BERMEA

DISTRIBUZIO KIT-A

PSA TALDEKO (PEUGEOT-CITROËN) JATORRIZKO PIEZETAN

%30 EKO DESKONTUA

ZURE IBILGAILUAK 5 URTE EDO GEHIAGOKO ANTZINATASUNA DAUKA? CITROËNEK ZURE IBILGAILUAREN ANTZINATASUNARI BEREZIKI EGOKITUTAKO ERAGIKETAK PROPOSATZEN DIZKIZU. INFORMAZIOA CITROËNEKO BANATZAILE OFIZIALARI ESKATU.

CITROËN nahigo du TOTAL

(*) Begiratu eskaintzaren baldintza orokorrak eta eskatu konpromisunik gabe zure CITROËN autoarentzat aurrekontua. Indamean dauden beste eskaintza batzuekin ez da bateragarria. Argazkia ez da kontratuzkoa.

www.citroen.es



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

INAUTERIAK 2014 >> Ez gorde oraindik mozorroa!



Ez gorde oraindik mozorroa!



ARRUAZU



ARBIZU



UHARTE ARAKI



ALTSASU



OLAZTI



URDIAIN



LAKUNTZA



ETXARRI ARANATZ



ARRUAZU



LAKUNTZA

BIKAIN
 GARAJEA, S.A.L.
 948 460 037 Arbizu
 948 463 441 Altsasu

Auto berri eta
 bigarren eskukoen
SALMENTA

Mekanika
 Elektrizitatea
 Txapa
 Margotzea

**ZURE NEGOZIOA
 GIDAN
 IRAGARTZEKO
 DEITU**

948 56 21 07
 618 88 26 27

Sakanako
gida
 2014

INAUTERIAK 2014 >> Ez gorde oraindik mozorroa!



ARBIZU



ALTSASU



OLAZTI



LIZARRAGA



ARRUAZU



IRURTZUN



ARBIZU



BAKAIKU



ITURMENDI



HAITE ARAKU



BAKAIKU



UNANU

Ez gorde oraindik mozorroa!



IRURTZUN



LAKUNTZA



URDIAN



ALTSASU



ITURMENDI



ETXARRI ARANATZ



ALTSASU



HERRIA



**FRONTOIKO
TABERNA**



**948 469 138
ERKUDEN 4 · ALTSASU**



nc
nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomaturia
(Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenz.com
nereacenz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

**Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)**

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R. P. S. N.º 372/04



**HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILA**

*Zatoz
gure
ardotegia
ezagutzera!*

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

INAUTERIAK 2014 >> Ez gorde oraindik mozorroa!



2014ko kintoak



ESKALADA

EKAITZ MAIZ ETXARRIN: Eskalatzaile etxauriarak Ametsen bidetik izeneko bi-deo emanaldia eskainiko du gaur, ostirale-

an, 21:00etan, Etxarri Aranazko Kultur Etxean. Bere azken lorpenak eta bere eskalatzearen inguruko filosofia azalduko du.

Motoziklismoa

Eskerrik beroenak



Tech3 eskuderia frantziarrak eta Alexen senitartekoek euren eskerrik beroenak eman nahi dizkiete Alexen egoeratik euren kezka eta babesa agertu duten pertsona guztiei. Facebook, twitter eta halako sare sozialen bidez asko dira pilotu irurtzundarrari animoak eman dizkieten pertsonak, herritarrek, lagunak, motorzaleak eta pilotuak. "Alex Mariñelarena komatik esnatu da. Pilotuak mugikortasuna du eta hitz egin dezake. Animo Alex!" zioen atzo MotoGPKo munduko txapelkun Marc Márquezek, esaterako. Gure animurik handiena bidali nahi diogu.

Aurreko ostegunean Munduko Motoziklismo Txapelketa prestatzeko Frantziako hegoaldeko Paul Ricard Zirkuituan entrenamendu pribatua egiten ari zen Alex Mariñelarena. Pilotu irurtzunda-

rrak istripu larria izan zuen; kolpe handia hartu zuen buruan, Beausst bihurguneko irteeran errikoa izan eta horma baten kontra jo eta gero. Touloneko Saint-Anne ospitalera eraman zuten

Berri onak: Alex komatik atera da

PILOTU IRURTZUNDARRA ASTEAZKEN GOIZEAN ESNATU ZEN KOMATIK, HITZ EGITEN DU ETA HANKAK ETA BESOAK MUGITZEN DITU

irurtzundarra eta medikuek koma-induzituan jartzea erabaki zuten, garunean hematoma bat, odolbildua, zuelako. Odolbildu hori desagertu zenez, pixkanaka sedazioa kentzea erabaki zuten medikuek, zuhurtzia guztiarekin. Orduetik koman jarraitzen zuen irurtzundarrak, egoera egonkorrean, baina berri pozgarriak gertatu ziren asteazkenean, pilotu irurtzundarra komatik esnatu baitzen.

"Alex goizean esnatuzen, hitz egiten du eta hankak eta besoak mugitzen ditu. Orain osatzeko denbora behar du" adierazi zuen asteazkenean Alex Mariñelarenaren taldeak, Tech3 eskuderia frantziarrak.

Senitartekoak pozik

Istripua izan zuenetik Alexek bere gurasoak eta arreba izan ditu ondoan. Asteazkeneko bisitara joan zirenean esnatuta opatu zuten

Alex eta sekulako poza hartu zuten senitartekoek. "Horrenbeste egun koman egon eta gero, nekatuta zegoen. Hitz egiten du, baina gutxi. Eta ezagutzen gaitu" adierazi du bere amak. Berri pozgarria berehala zabaldu zen eta notizia pozez hartu zuten Irurtzunen.

Denbora behar du

Komatik atera eta gero medikuek egindakogalderei ongi erantzun zuten Alexek. Istripuak beste aztarna edo ondorioz utzi duen jakiteko goizegi da oraindik. Medikuek zuhurrak dira eta beharrezkoak diren probak egin nahi dizkiote, eta pilotuaren eboluzioa ikusi. Dena den, badirudi 21 urteko pilotuaren errekupezioa bide onetik doala, baina luzea izango dela aurreikusten da. "Errekupezio prozesua hasi besterik ez da egin" nabarmendu du Tech3-k.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

27. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 1 - TXANTREA 2
Lehen zatian Lagun Artea izan zen nagusi. 35. minutuan Arratibeleg gola sartu zuen penaltz eta lakuntzarrak aurreratu ziren. Unai Bakaikoak ere aukera ederra izan zuen, baina huts egin zuen. Bigarren zatian Txantrearen aldeko penalti zalantzarria sartu zuen Txantreak. Eta partida berdinketarekin despidituko zela aurreikusten zenean, Cheikek Txantrearen garaipenaren gola sartu zuen. Lagun Artek jaitziera postuak 3 puntu eskasera ditu.

Saillkapena >>

1. San Juan 61 p
17. Lagun Artea 27 p

Asteburuko jardunaldia

IRUÑA - LAGUN ARTEA

(Larunbatean, 16:30ean, Taxoaren)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

22. JARDUNALDIA

DONEZTEBE 1 - LAGUN ARTEA B 2
ALTSASU 0 - BERRIOZAR 1
AMAYA 1 - ETXARRI ARANATZ 2
Doneztebek eta Lagun Artea B-k erakustaldi bikaina egin zuten. Lagun Artea B-k Doneztebek baino hobe aprobetxatu zituen aukerak, eta markagailuan aurreratu zen. Nahiz eta Doneztebek berdindu, partida bukaeran irabaztea lortu zuen Lagun Artea B-k. Euripean jokatu zen Altsasu eta Berriozarren arteko lehia. Altsasuk gogor borrokatu zuen, baina ez zen kontrako atera behar bezala iritsi. 2. zatian Caballerok Berriozar aurreratu zuen, corner baten ondoren. Altsasu saiatu zen, baina markagailuan ez zen aldatetarik egon. Aldiz, Amayaren kontra garaipen polita lortu zuen Etxarrik. Partida lehiatuan, baloi geldirako jokaldiek baldintzatu zuten lehia eta hor etxarriarrak ibili ziren finago. Nahiz eta Amaya aurreratu, Asierrek eta Bakaikoak garaipena eman zioten Etxarri.

Saillkapena >>

1. Lekunberriko Beti Kozkor 49 p
4. Lagun Artea B 38 p
8. Altsasu 29 p
15. Etxarri Aranatz 19 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA B - AMAYA

(Igandean, 12:15ean, Berriozarren)

LAGUNAK B - ALTSASU

(Larunbatean, 18:15ean, Barañainen)

ETXARRI ARANATZ - SAN JORGE

(Larunbatean, 16:30ean, Etxarri)

Areto futbola

Futsal Sakanan play offak jokoan

RACING SAN MIGEL ETA BUNKER PLAY OFFETAKO FINAL ERDIETARAKO SAILLKATU DIRA. BIHAR FINAL LAURDENETAKO BESTE BI LEHIA DAUDE JOKOAN

Futsal Sakana Txapelketako saillkapena

1.	Racing San Migel	34 puntu
2.	Auzomotojorik	25 puntu
3.	Arbizu	9 puntu
4.	Etxarriko Gaztetxie	3 puntu
5.	Biltoki	12 puntu
6.	Iturmendi	9 puntu
7.	Bunker	9 puntu



Bunker finalerdietarako saillkatu da.

Play offak. Final laurdenak

-Auzomotojorik 4 - Bunker 9
-Arbizu - Iturmendi (Larunbatean, 10:00etan, Uhartte Arakilen)
-Etxarriko Gaztetxie - Biltoki (Larunbatean, 11:00etan, Uhartte Arakilen)

motojorik taldeari eta final erdiertarako saillkatu zen. Larunbatean final laurdenetako beste bi lehiak jokatu dira Uhartte Arakileko pilotalekuan.

www.futsalsakana.es

Txapelketako informazio guztia. Facebook eta twitter sare sozialetan ere bai.

Futbola

Magna, Inter Movistar liderraren kontra

Llevant Manacorren kontra azken segundoa galdu zuten irurtzundarrek

Magna Nafarroa Xotak 6-7 galdu zuen etxean saillkapeneko azken postuetan dagoen Llevant Manacorren kontra. Irurtzungo taldeak saillkapeneko 4. posturagerturatzeko urrezko 3 puntu alferrik galtzen utzi zituen. Imanol Arregik onartu zuen taldea ez zela espero bezala aritu. "Gaizki aritu gara eta kitto. Egindakoa onartu behar dugu, jaiki eta hurrengo partida prestatu". Inter Movistarrek jarraitzen du lider (58 puntu). Magna Nafarroa 5.a da (34 puntu). Hain zuzen ere, ostiralean Inter Movistar liderraren kontra ariko da Magna, 21:00etan.

Taku Miura



Astelehenetik hasita eta apirilaren 12ra arte Taku Miura atezain japoniarra Magnan entrenatzen ari da. Egun Japoniako Kantou Ligueko Fire Fox Fuchu areto futbol taldeko atezain titularra da Miura. Bertako liga denboraldia bukatu denez, Iruñera etortzea erabaki du, entrenamendu teknika berriak ikasi eta atezain bezala hotzeko asmoz. "Klubari eta Imanol Arregiri bihotzez eskertu nahi diet eurek emandako aukera" adierazi du Magnan kontentua dagoen japoniarrek.

Pista txirrindularitza



MUNDUKO PISTA TXAPELKETA

Hodei Mazkian 11.a kilometroko proban

Taldeak abiadura 9.a izan zen altsasuarra

Kolonbiako Calin jokatu dira Munduko Pista Txapelketak. Hodei Mazkian izan da Espainiako pista selekzionatzaile Salvador Meliá hautatutako pistardetako bat. Altsasuarrek asteazkenean taldekako abiadura proban hartu zuen parte, Juan Peralta eta Jose Morenorekin batera. Hirukotea 9. postuan saillkatu zen, diploma lortzeko postu eskas batera. Ostiralean kilometroko proban aritu zen Hodei. François Pervis frantziarrak urrea lortu zuen, 59-385 denborarekin. Altsasuarra 11.a saillkatu zen, 1-02-041 denborarekin. Kilometroan behetik gora egin zuen Mazkianek eta alde horretatik kontentua zegoen altsasuarra. "Ez dirudi emaitza handia baina sorpresa positiboa hartu dut, gure arerio zuzenek segundotako baina gehixeagoko alde soilik ateraditela" adierazi du Salvador Meliá selekzionatzaileak.

Kiroldegia

Desfibriladore titulua dutenek ikastaroaren birziklatzea egin behar dute

Martxoaren 21ean eskainiko da ikastaroa, Sakanan

Aurretik desfibriladoreak erabiltzeko titulua atera dutenek jakin dezatezela arautegi berriak 2 urtetik behin birziklatze ikastaro bat egitea eskatzen duela, lortutako desfibriladore titulua mantentzeko. Horrela, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak, Nafarroako Kirol Institutuaren bitartez, titulua daukaten guztiei 4 orduko ikastaroa eskainiko die Sakanan bertan, martxoaren 21ean, arratsaldean, 16:30etik 20:30era.

IZENA EMATEKO

Izena emateko Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzura hots egin behar da martxoaren 17a baino lehen (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.com).

Txirrindularitza

Aralar Txirrindulari Klubak denboraldia aurkeztuko du

Larunbatean, 17:00etan, Uharteko Arakilen

Txirrindularitza denboraldia hasi berri denean, Aralar Txirrindularitza Klubak 2014ko taldeen eta denboraldiaren aurkezpena egingen du larunbatean Uharteko Arakilgo udaltxean.

AFIZIONATUEK LIZARTZAN ETA ASTEASUN DUTE HITZORDUA

Asteburuko lasterketei dagokienez, afizionatuek bi hitzordu dituzte. Larunbatean 23 urtez azpiko Lehendakari Torneorako baliagarria den lasterketa jokatu da Lizartzan, 15:30ean (104 km). Eta, igandean, Espainiako Koparako baliagarria den 11. Aitzondo Klasikoa jokatu da Asteasun, 10:00etan (135 km).

Saskibaloia-Futbol 8

Jardunaldirik ez

Inauteriengatik, Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketan eta I. Sakanako Saskibaloia Topaketan ez da jardunaldirik jokatu.

Altsasuko ihauteriak direla eta, asteburu honetan ez da Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketarik eta I. Sakanako Saskibaloia Topaketarik jokatu. Martxoaren 16an jokatu da hurrengo jardunaldia.

Mendi lasterketak



Jorge Azanza Aiako proban. INTERNET

Jorge Azanza mendi lasterketetan estreinatzen

Euskalteko txirrindulari ohia 18.a sailkatu zen Aiako mendi lasterketan

Igandean III. Aiako mendi lasterketa jokatu zen, 10 km-ko lasterketa, 640 metroko desnibelarekin. 134 korrikalari iritsi ziren helmugara eta Abderrahim el Qayed izan zen azkarrena (46:09). Jorge Azanza Euskalteko Euskadiko txirrindulari ohiak mendi lasterketetan debutatu zuen eta lan bikaina egin zuen, 18.a iritsi baitzen helmugara (55:05). "Ufff... Goraka ongi, baina jaisten ez horrenbeste. Hobetu beharko dut, eta kirola egiten disfrutatzen jarraitu. Esperientzia polita, desberdina" zioen Ziordian bizi den altsasuarrak bere facebook orrian. Ongi etorria mendi lasterketetara!

Disko jaurtiketa

June Kintana, zilarrezkoa

ESPAINIako ATLETISMO TXAPELKETAKO JAURTIKETA LUZEEN TXAPELKETAN ZILARREZKO DOMINA LORTU ZUEN BAKAIKUARRAK, DISKO JAURTIKETAN

Asteburuan Espainiako Atletismo Txapelketetan Jaurtiketa Luzeen Neguko Txapelketa jokatu da Leon-go CEAR-en (Centro Especial Alto Rendimiento Deportivo). Emakumezkoen disko jaurtiketan parte hartu zuen June Kintanak. 18 urteko bakaikuarraren helburua dominaren bat lortzea zen eta lortu du: zilarrezko domina kolkoratu du.

Emakumezkoen disko txapelketan orain arteko Espainiako txapeladun eta proba irabazteko hautagai nagusi Sabina Asenjok lortu zuen urrea, 55,45 metroko jaurtiketarekin. Bere atzetik sailkatu zen

June, 47,82 metroko jaurtiketarekin. Maria Belen Toimil izan zen hirugarrena (47,73 m). Junek ez zuen beremarka hobetzea lortu (49,68m), baina lan ona egin zuen.

Kintana juniorretako bigarren urteko kategorian dago. Estatuko disko jaurtitzailer onenetakoa da eta etorkizun oparoa du. Izan ere, horren gaztea izanik, hobetzeko tarte handia du eta helburu horrekin Leonera joan da bizitzera. Bertan, bere albaitaritza ikasketak kirolarekin uztartzen ditu, Leon-go CEAR-en egunero 4 orduko entrenamendua egiten baitu.

"Ez nuen Toimil gainditzea espero"



June Kintanak adierazi digunez, "ez nuen bigarrena sailkatzea espero. Hirugarrena edo laugarrena bai, baina uste nuen ez nuela Belen Toimil gaindituko. Bera hobeto ariko zela espero nuen". Zilarrezkoa kolkoratzearekin pozik dago bakaikuarra, baina marka hobea egitea espero zuen. "47,82 metrora bota nuen diskoa. Hobeki egin nezake, 49,68 metroko marka dudalako, baina urduritasunagatik edo ez dakit zergatik ez nintzen markara hurbildu. Horrek amorruta ematen dit, baina dena den, kontentu nago egindakoarekin" gaineratu du Kintanak. Espainiako hurrengo txapelketa uda aldera jokatu da.

Pilota

Txanponaren bi aldeak

XALAK ETA ZUBIETAK 6. PUNTUA LORTU DUTE. EZKURDIK ETA ZABALETAK MIRARIA BEHARKO LUKETE

Sailkapena

Irujo-Barriola	9 puntu
Olaizola II.a-Aretxabaleta	8 puntu
Xala-Zubietak	6 puntu
Titin III.a-Merino II.a	5 puntu
Urrutikoetxea-Beroiz	5 puntu
Berasaluze II.a-Albisu	4 puntu
Bengoetxea VI.a-Zabala	4 puntu
Ezkurdia-Zabaleta	3 puntu

12. jardunaldia

Xala-Zubietak/Bengoetxea VI.a-Zabala (ostiralean, 21:00etan, Angelun. ETB1)

Olaizola II.a-Aretxabaleta / Urrutikoetxea-Beroiz (larunbatean, 17:15ean, Bilbon).

Berasaluze II.a-Albisu / Ezkurdia-Zabaleta (larunbatean, 17:15ean, Labriten)

Titin III.a-Merino II.a / Irujo-Barriola (igandean, 17:00etan, Logroñon. ETB1)

Sakandarren arteko derbyak bi egoera oso ezberdin utzi ditu. Yves Xalak eta Aitor Zubietak 22-5 hartu zituzten menpean astelehenean Joseba Ezkurdia eta Jose Jabier Zabaleta. Xalak eta Zubietak 6. puntu lortu eta finalerdietara sailkatzeko pausu handia eman zuten. Ezkurdia eta Zabaleta, aldiz, zuloan daude, 3 puntu eskasekin, binakakoan aurrera egiteko aukera oso gutxiarekin. Ezusteko erraldoia izan ezean bi sakandarrek ez daukate finalerdietarako sailkatzeko aukerarik. Aldiz, litekeena da Xalak eta Zubietak beste partida bat irabaztearekin nahikoa izatea finalerdietara sailkatzeko. Txanponaren bi aldeetan daude gure pilotariak.

Tolosan jokatu zuten pilota partida modu orekatuan hasi zuten bi bikoek eta partida oso gogorra eta



Ezkurdia-Zabaletak ez dute amore eman eta irabaztera aterako dira.

lehiatua izan zen. Lau pilotariek lan handia egin zuten, baina Xala izan zen onena eta berak erabaki zuen partida. Lekuindarrak 15 tanto egin zituen, horietatik 12 jokoa, eta airea eman zion kantxan deseroso aritu zen Zubietari.

Hasieran Zabaleta nagusitu zen pilotatzen eta 5-9 aurreratu ziren Ezkurdia eta Zabaleta. Xala betebetean sartu zen partidan eta tarte ireki zuen, 12-9 aurreratu. Zabaletak sekulako pilotakadak jo zituen eta Zubietari sufriarazi zuen,

Bakaikoaren Nafarroa, Espainiako txapeladuna



Asteburuan Gazteen Mailako Espainiako Txapelketako eskuzko eta erremintako finalak jokatu ziren Logroñon. Aurreko asteburuan eskuzko buruz buruko eta larru paletako finalak jokatu ziren, eta Nafarroako ordezkariak izan ziren garaile. Eta asteburu honetan eskuzko binakako eta pala motzako finalen txanda izan zen.

Eskuzko binakakoan Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Joseba Sarasak ordezkatu zuten Nafarroa. Errioxako Unai Laso eta Iñigo Martinez izan zituzten arerio. Final gogorrean, lehendabiziko jokoa 10-9 gailendu ziren nafarrak. Bigarren jokoa seina berdindu zuten, baina Bakaikoak eta Sarasak 4 tanto egin zituzten jarraian eta partida irabaztea eta urrezko domina kolkoratzea lortu zuten. Txapelketako modalitate ezberdinetako final guztiak irabazita, Nafarroa da Espainiako Txapelketako gazte mailako txapeladuna.

baina Xala bikain aritu zenez aurrean, berak erabaki zuen. Ezkurdiak ere tanto politak egin zituen, 16-14 gerturatu ziren markagailuan, baina Xalaren eguna izan zen. Xalak eta Zubietak tarte zabaltzen joan ziren, eta azkenean 22-15 gailendu ziren. "Ezkerrarekin konfiantza gabe aritu naiz eta ez dut gozatu, baina Xalak oso ongi jokatu du" adierazi zuen partida bukaeran Aitor Zubietak.

Ezkurdia-Zabaleta, irabaztera

Gaur Xala-Zubietak Bengoetxea-Zabala izanen dituzte arerio Angelun. Irabaziz gero, finalerdietara sailkatzeko pausu erraldoia eman gularikete. Bestalde, Ezkurdia-Zabaletak bihar jokatu dute Labriten, Berasaluze-Albisuren kontra. Sakandarrek irabaziz gero, Berasaluze eta Albisuren puntu berberak eskuratuko lituzkete. Asko dago jokoan. "Aukera gutxi ditugu, baina oraindik bateonbat badago eta horretarako irabazi beharrean gaude" zioen Zabaletak material aukeraketan. Ea hala den.

Sakandarrak Zizurko lau t'erdian

Txapelketako finalerdia hartu zituen Zizurko

Asteburuan Zizurko lau t'erdiko finalerdia jokatu ziren Zizurko Ardoi pilotalekuan. Pilotari sakandarrak txukun aritu ziren eta Ezkurdiak eta Azpirozek finalerako sailkatzea lortu zuten.

Sakandarren emaitzak

Benjaminak II: Arrillaga (Andoain) **16** - Erdozia (Gure Pilota) **3**
Kimuak II: Cia (Paz de Ziganda) **10** - Azpiroz (Irurtzun) **16**
Haurrak I: Oskoz (Oberena) **16** - Ganboa (Aldabide) **10**
Seniorrak: Ezkurdia (Irurtzun) **18** - Amezketak (Zegama) **12**

Dora Salazarren unibertsoa antzerkira

Garbi Losadak idatzitako eta zuzendutako Dora Salazar artistaren lanaren berrikuspen eszeniko bat mustu du Ados Teatroak

Ados Teatroak otsailaren 23an mustu zuen Errenterian bere azken muntaita: *Maitasunaren ostean, maitasuna*. Garbi Losadak idatzi eta zuzendu du obra Dora Salazarren iruditerian oinarrituta, sortzaile altsasuarraren "unibertsoaren berrikuspen aske eta subjektibo bat" osatuz. Baina Losadak eta Salazarrek elkarlan estuan sortua da.

Antzerki konpainiak mihise tridimentsional baten moduan tratatu du eszenatokia. Elementu bertikalak (mihiseak) eta lurrekoak material berarekin eginak dira. Gardentasun, sakonera eta perspektiba joko ahalbidetzen du. Aldi berean, oihalak mugikorrek dira eta espazio ezberdinak sortzen dira horrela. Mihise horietan Salazarren obra proiektatzen da eta aktoreak artistaren eskulturekin harreman zuzenean daude.



Antzezlana

Losadak hiru ahotsetako maitasun istorioa proposatzen du: "panpin errusiarrak bailiran kontatua, non istorio batek beste istorio bat gordetzen duen, eta honek beste bat... Iragana eta etorkizuna elkarri lotzen zaizkio". Betiere, Dora Salazarren lana oinarri harturik.

Protagonista Aurora da, 60 urteko matematika irakasle jubilatu eta alarguna. Alzheimerra du, baina irakurtzeko eta idazteko gai da. Bere gaixotasunaren argi-ilunetan

Salazarren bi lan NUPn erakusketa birtualean

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) bederatzi artisten 11 lan jasotzen dituen erakusketa birtuala prestatu du martxoarako. Unibertsitatearen ondare artistikoaren zati diren artelanak ikus daitezke

erakusketa birtual horretan. Horien artean Dora Salazarren bi lan daude: *Icarus* (2002) eskultura eta *Overflying* (2002) irudia. NUPek erakusketa horrekin estatu osoan egin den Festival Miradas de Mujeres jaialdian parte hartzen du. Arte bisualetako emakume sortzaileak ikusgarri egin nahi ditu jaialdiak.

bizi da. Paula bere alaba da. Batzuetan iraganeko itzalekin nahasiko da eta horrela jakinen du Paulak bera txikia zela amak ezkutuko

maitasun istorioa izan zuela.

Ane Gabarain, Dorleta Urretabizkaia eta Sara Cozar aktoreak aritzen dira taula gainean.

Zea Maysekin hitzordua

Larunbatean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean

Euskal musikako izen handietako bat etorriko da bihar bisitan Olatzagutira: Zea Mays. Laukote bilbotarrak karrikaratu duen azken lana, *Da*, aurkeztuko du gaztetxean. Ordu pasa baino gehiago irauten duten 13 mozqueta ditu diskoak. Bere entzunaldian aniztasuna opatuko du entzuleak: dantzarako doinuetatik stonerera, distortsioa eta rocka. Indar handiko auto-ekoizpen lana.

Asier Basabe (bateria), Ruben Gonzalez (baxua), Iñaki Imaz (gitarra) eta Aiora Renteria (ahotsa) publiko zabalarendako ezagun egin zituen aurreko diskoak eta hiru urteren bueltan musika eskaintza berrituta heldu dira. Horretarako taldeak estreinakoz kanpoko ekoizle batekin lan egin du: Dave M. Allen. Estudioko zazpigarren lan hau Zea Mays *Da*.



bazterretik

Aritz Viñas

Hang

Kaixo lagunok! Gaur instrumentu ezberdin batez hitz egiteko gogoia dut zuekin. Duela urte bat gutxi gora-behera ezagutu nuen, eta momentu horretatik ezin izan dut burutik kendu.

Instrumentu hau Hang-a da, PANART enpresak 2000 urtean Suitzan sortutako perkusio tresna berri bat. Eskuekin jotzeko altzairuzko tres-

na bat da. Tresna hau sortzeko jatorria Europan "SteelBand"-en hazkundera izan zen; 1993-ansortu zen PANART enpresa eta 2000 urtean tresna berri honek argia ikusi zuen. Tresna hau modu ezberdinetan jo dezakegu: esku osoarekin, behatz lodiekin, hatz-mamiekin edota hiru modu hauen nahasketa eginez. Normalean Hang-a musikariaren hanken artean jartzen da jotzeko. Metal doinu harmoniko bat ematen

du eta melodiak egiteko gai izan gaitzke, nota eta doinu ezberdinak ateratzen direlako. Tresnak bi hemisferio ditu haien artean itsatsita, goiko hemisferioak Ding du eta behekoak, berriz, Gu. Ding aldeak (goiko parte) zirkulu forma hartzen dituen 8 tonu ditu, izan ere, zirkulu hauek zirkulu handiagobaten barruan daude, eta horrela, 8 tonu horietaz aparte hauen aldaketak entzungo ditugu. Ding-aren erdian

zirkulu handiago bat aurki dezakegu, horrek "Gong" baten soinuaren antzekoa egingen du. Gualdean (beheko parte) zulo bat aurki dezakegu tresnaren barruan sortzen diren doinuak altuago entzuteko. Tresna honek duen eragozpen bakkarra lortzeko zailegia dela da. Hang bat lortzeko gutun bat bidali beharra dago, zure eskutitza aukeratu beharra dute eta horretarako hila-beteak pasa daitezke. Behin gure

eskutitza aukeratutakoan gonbidapen bat jasoko dugu Suitzara joateko, han PANART enpresaren zentrolean guk aukeratuko dugu zein Hang nahi dugun. Tresna hau hobeto ezagutzeko eta bere doinua behar den bezala entzuteko youtubera jotzea gomendatzen dizuet, bertan Daniel Waples bilatu, bolumena igo eta erlaxatu. Egungogor baten ondoren beti dator ongi Hang abesti bat edo bi.

kattuka
haur eskola

Aurre matrikula epea:
Martxoaren 3tik 18ra

Matrikula epea:
Maiatzaren 23tik 30era

Uhalde kalea z/g • 31839 Arbizu • 948 567 009 • kattukahaireskola@gmail.com

2 SARREREN
ZOKETAN
SARITUA:

Maiden Gabirondo

Zorionak eta ongi pasa

OLAZITIKO
GAZTE ASANBLADAK

Zea Mays

MARTXOAK 8, LARUNBATA
GAHEKO 23:00 TAN MAISUENEA GAZTETXEAN

Basak zer toki du gure bizitzan?



Galdera horri erantzuten dioten arte garaikideko obrak Altsasuko Iortia kultur gunean ikusgai izanen dira

Laugarren urtez jarraian Zangozako, Noaingo eta Altsasuko kultur guneek *Post*, *arte garaikidea ibiltaritzan* erakusketa antolatuta dute. Kalitatezko arte garaikidea herrietara ekarri nahi du ekimenak eta, horretarako, *Post 2014k* diziplina anitzeko erakusketa kolektiboa ondu dute. Greta Alfaro, Bego Antón, Naia Del Castillo eta Cristina Lucasen lanak biltzen dira *Saiak*, *elfoak*, *mario-rratzak*, *gizonak* eta *emakumeak* izenburuko erakusketan.

Lausortzaileek galdera bati erantzun diote erakusketako lanak sortzeko: gure bizitzetan zein toki du edo izan zezakeen basak? Izan ere, pertsonak eta naturak banatu dituzten egoerak daude, esaterako: hirietatik natura elementuak ia desagerrarazi direla; norberaren barruko

animali sena hiritar proiektuaren onetan isilarazi dela edo pertsonen, animalien eta naturaren arteko harremanaren akabera.

Arrazoi horietan oinarrituta lau sortzaileek galdera erantzun dute. Hala, erakusketak zibilizazioaren eta naturaren arteko joan-etorria proposatzen du. Batzutan natura gainditzen da, edertasunagatik, esaterako, baina bestetan pertsonaren jardunak zurruputzen dute. Bi bideo, argazki serie bat eta instalazio bat ikusteko aukera izanen da Iortia kultur gunean. Haietan dauden irudi eta objektuetan fikzioa eta errealtatea nahastu egiten dira.

Erakusketa

Asteazkenean mustuko da eta apirilaren 5era arte izanen da ikusgai; astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Egileak

Greta Alfaro (Iruña, 1977). *In ictu oculi* (2009), (instant batean). Bideoa, 10:35. Jokabide sozialen inguruko hausnarketa, baita bizitzaren hauskortasunari buruzkoa.

Bego Anton (Bilbo, 1983). *The earth is only a little dust under our feet* (gure oinen azpian lurra hauts txikia besterik ez da). Izaki magikoen opatzeko egindako bilaketa baten berri ematen da.

Naia del Catillo (Bilbo, 1975). *Desplazamientos*, 2010-2012. Instalazioa. Naturarekin dugun harremana eta hari egindako aldaketa kontsumo objektu bihurtzeko.

Cristina Lucas (Jaen, 1973). *Hacia lo salvaje* (2011). Bideoa, 16. Gizartearekin eta zibilizazioarekin dituen loturak hautsi nahi duen emakume batek hasitako lege bidea.

Karmele Jaio Olaztin

Karmele Jaio Eigurenen *Amarreneskuak* (Elkar, 2006) liburua izan zen lehenik eta gero etorri zen filma (Mireia Gabilondo, 2013). Nereak ospitalean lo dagoen amaren istorio ezkutuak jakinen ditu, ondoan izan duena neurri batean ezezaguna bihurtuz. Biznahiaren inguruko lana ondu zuen Jaiok.

Bi lan horiekin gozatzeko aukera dago Olatzagutian. Irakurle Taldeko kideak liburua irakurtzen ari dira. Gaur, berriz, 22:00etan kultur etxean filma ikusteko aukera izanen da, euskarazko bertsioa eta gaztelaniazko azpidatziekin. Liburua irakurri edo filma ikusten duenak heldu den ostiralean egilearekin eginen den topaketan parte hartzeko aukera izanen du.

Nazabalen akuarela Ubedan

Jaengo hiriko aurreneko topaketa artistikoak gaur mustuko dira. Eta harekin batera, 20:30ean, haren baitan antolatutako akuarela erakusketa, martxoaren 31ra arte Hospital de Santiago kultur gunean ikusgai izanen dena. Gaztela eta Leon, Segovia, Guadalajara, Espainia, Katalunia eta Euskal Herriko akuarela elkarrekin hamarnaka kideren lanek osatzen dute erakusketa.

Euskal Herriko elkarteak 300 akuarelisten artean hautatu dituen hamar ordezkarien artean dago Itziar Nazabal. Altsasuarra hautatua izateagatik pozik azaldu zaigu. Esan digunez, erakusketa horretara *Biluziak eta pasioa* serieko akuarela bat aurkeztu du. Lau margoko sorta egina zuen eta,



azkenik, *Prest nago... beraz...* izenburua duen koadroa izanen da ikusgai Ubedan. Paper gainean egindako akuarela nahasia da, 85 x 65 cm-ko neurria duena.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK

Graduko azken ikasturtea atzerrian egiteko abagunea eman didate, eta neure burua aberasteko oso baliogarria izango delakoan, ez diot aukerari uko egingo.

Matxalen Palacio,
Lidergo Ekintzailea eta
Berrikuntza, 4. maila.



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI • MARTXOAK 15
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE • MARTXOAK 20
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA • MARTXOAK 27
Osteguna, 17:30 / Orona Fundazioa

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • MARTXOAK 15
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ONATI • MARTXOAK 22
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • MARTXOAK 29
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORITATZA • MARTXOAK 6
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETZA • MARTXOAK 6
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA • MARTXOAK 22
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 4%	euria: 3%	euria: 8%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 8%
Min: 2 Max: 15	Min: 3 Max: 19	Min: 7 Max: 18	Min: 4 Max: 17	Min: 3 Max: 16	Min: 5 Max: 18	Min: 6 Max: 18	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	13.5	-0.5	185.7
Altsasu	12.5	0	172.9
Aralar	5.7	-3.3	120.4
Urbasa	11	-2	136.4

: ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	8	16	24	30

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixe gualxe

Marsuko bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Jorge Iriarte
NIABZ-CRANA-ko langilea

Testua: Maialen Huarte Arano



1. 2002. urtean sortu zen NIABZ-CRANA fundazioa eta orain ixtea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Zertan aritzen da zehazki fundazioa?

Natur gaiez arduratzen den fundazio bakarra da Nafarroan. Hortaz, ingurumenarekin loturiko arazoak kudeatu eta irtenbide ematen saiatzea izan da fundazioaren erronka.
2. Zein helbururekin aritu da lanean urteotan?

Hamaika urtean ingurumenari lotutako zenbait arlo landu ditugu. Mugikortasun iraunkorra, uraren kudeaketa, kontsumo arduratsua, eraginkortasun ekologikoa eta oro har ingurumenaren zaintzan ibili gara jardunean. Ingurumen hezkuntza izan da ardatza, ingurumenari buruzko informazioa zabaldu, hezkuntza eskaini eta partaidetza bultzatu ditugu besteak beste.
3. Fundazioa ixtearen mehatxua jaso duzue. Nork hartuko luke zuek egiten duzuen lanaren ardura?

Nafarroako Gobernuak esan du bere langileekin eginen duela gure lana. Orain arte ez du halakorik egin, ez baitu espezializatutako jenderik lan hori egiteko. Ingurumen arloan aditua den jendea behar da, beste edozein arlotan bezala. Ez hori bakarrik, izan ere, bitartekari lana egin izan dugu gatazkak sortzen direnean. Gehienetan tirabira horiek gizarte eragileen, enpresen, sindikatuen eta Gobernuaren beraren artean sortzen dira. Hortaz, Gobernu horretaz arduraz ezinezkoa da.
4. Zergatik itxi nahi du Gobernuak?

Arazoi ekonomikoak tarteko.

Baina aitzakia baino ez da hori. Gogoratu behar da ez duela soilik NIABZ fundazioa itxiko, beste zazpirekin ere gauza bera egin nahi baitu. Itxiera horren atzean beste interes batzuk daudela uste dugu, baina galdera egin diegu eta ez dute erantzunik eman nahi izan.

5. Nondik jasotzen du fundazioak diru-laguntza?

Nafarroako Gobernuak ematen zigun hasieran, berak hartzen zuen inbertsio guztia beregain. Urteak aurrera egin ahala, baina, beste diru iturri batzuk aurkitu ditugu. Madrildik eta Europatik zenbait proiektu laguntza eman diete. Orain herena baino ez dugu jasotzen Gobernutik.
6. Bideragarria da langileen ustez fundazioa mantentzea?

Bideragarria da zalantzarik gabe eta are gehiago, errentagarria ere bada nafarrentzat. Izan ere, Nafarroako Gobernuak 100 euroko inbertsioa egiten duenean fundazioan, 90 euro gehiago eskuratzen ditu.
7. Zenbat langile ari zarete gaur egun?

16 gaude uneotan, 25 ere izan gara. Hamaika urteotan jende asko pasa da fundaziotik.
8. Lanean zaudete gaur gaurkoz. Itxiko balute, zer gertatuko litzateke zuekin, langileekin?

Ez dago zirrikiturik, kalera joanen ginatke guztiak. Ez dago plangintzarik birkolokatzeko. Urte bukaera baino lehen joanen gara kalera guztiak eta ematen duenez pixkanaka eginen dute kaleratze prozesua.
9. Zu zertan aritzen zara

zehazki?

Nire lana liburuzainarena izanda. Informazioa zabaltzen espezializatu naiz. Txostenak egin, sare sozialetan gure lana zabaldu eta lankideei beharrezkoa duten informazioa eskuratzen lagundu.

10. Fundazioaren jarraipena posible ikusten duzue?

Horretan saiatzen ari gara. Alderdi politikoekin bilerak egin ditugu eta Parlamentuan ere azaldu dugu zein egoeratan gera gaitzkeen langileak eta zein egoeratan gera daitezkeen eskaintzen dugun zerbitzua. Ingurumen Kontseilariak ez du atzera pausorik emateko asmorik. Etorkizuna beltza ikusten dugu. Bideragarritasun plana aurkezteko asmotan gaude, baina deusetarako balioko duen zalantza ditugu, Kontseilariak esan baitzigun Yolanda Barcinak hartutako erabaki tinkoa dela ixteko aukerarena.
11. Fundazioa ixtearen aurka ez zaudete langileak bakarrik.

Duela hamaika urte eragile sozialek eskatuta sortu zen fundazioa. Enpresek, sindikatuek, ekologistek eta unibertsitateak ere eskatu zuten fundazioaren sorkuntza, orain, era berean, ixtearen aurka ere agertu dira. Ez hori bakarrik, Parlamentuak aho batez eman digu babesa. Gobernuak da ixteko erabaki hori hartu duen bakarra. Hortaz, etorkizun hurbilean presioa eragitea baino ez zaigu gelditzen. Gure patronatuari, fundazioa kudeatzeaz arduratzen denari eragitea lortu nahi dugu eta bide berean baita kontseilariak ere. Fundazioarekin zer gertatuko den argitzeaz gainera langileekin zer eginen duten jakiteko. Itxi behar badute modu kaotikoan izan ez dadin eskatuko diegu.

Xumetasuna, satisfaziorik handiena

Leonardo da Vinci

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea